

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA 2019

ANDOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Maitatu euskara, erabiliz

Iritsi da **Euskararen Nazioarteko Eguna**. Abenduaren 3a da egutegian markatuta dagoen eguna hemen eta munduan zehar euskara ospatzeko, euskarari irribarre egin eta euskaraz irribarre egiteko. Urteak dituen 365 egunak dira garrantzitsuak euskararentzat, eta horietako bat dugu, abenduaren 3a hain zuzen ere, arnasa hartu eta, ikusita, euskarak aurrerabidean jarraitzen duela, poztu eta irribarre egiteko; eta, aldi berean, gu guztion konpromisoa berri eta berrindartzeko, bai euskara erabiltzeko eta baita ere erabili nahi eta erabili ahal duen guztiari hartarako aukerak eta erraztasunak emateko.

Euskararen joan etorrian urtemuga esanguratsuak egokitu zaizkigu aurten. Duela berrogeita hamar urte hil zen Rikardo Arregi. Euskararen biziraupen eta garapenerako bide berriak ireki zituen. Besteak beste, "Euskaldunak euskaraz: idatzi, irakurri, hitz egin" lelopean, Euskal Herri osora zabaldu zen lehenengo euskarazko alfabetatze kanpaina abiarazi zuen Rikardok. Bere gogoia zen euskara eguneroko bizitzarako hizkuntza funtzionala izatea, herritarren espresabide osoa izatea, familia eta lagunarteko erabileretarako adierazpidea ez ezik kulturgintza, hedabide eta erabilera profesional guztietarako komunikazio-tresna izatea. Horregatik jarri zuen martxan alfabetatze kanpaina, eta horregatik bultzatu zuen euskarazko liburugintzarako plan berezia.

Rikardo Arregi hil eta hamar urtera, 1979an, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zen eta, haren 6. artikulua eskutik, ate zabala ireki zitzaion euskarari. Euskara, Euskadiko Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza, hizkuntza ofizialtzat aitortua izan zen, gaztelania bezala. Gizartearen parte handi batek urte askoan bigarren mailakotzat kontsideratu izan zuen hizkuntzari, diktaduraren urte ilunetan eremu publikoko hainbat arlotan batzuetan debekatua eta betiere baztertua izan zen hizkuntzari, euskarari alegia, ofizialtasuna aitortu zitzaion duela 40 urte. Ofizialtasuna aitortzearekin batera, herritar guztiei aitortu zitzaion, halaber, euskara eta gaztelania ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta herri-aginteei obligazioa ezarri zitzaion eskubide hori eta euskararen ezagutza progresiboki bermatzeko. Ofizialtasunak irekitako atek arnas luzea ekarri

zion euskarari, eta haren ondorioz han eta hemen garatu diren politiken laguntzarekin gizarteak egin duen ahaleginari esker, gauzak asko aldatu dira ordutik eta Rikardo Arregiren garaitik hona, euskararen mesedetan. Andoainen ere bai. 1981eko udal erroldan jasotako datuen arabera, Andoainen % 36 ziren euskaldunak, eta % 44 euskara ulertzera ere iristen ez ziren erdaldun elebakarrak. Gaur egun, azkeneko datu ofizialen arabera, % 56 dira euskaldunak (garai hartan baino 20 puntu gehiago), eta % 26 euskararik ez dakitenak (18 puntu gutxiago). Badira beste 2.500 andoaindar ulertzen dutenak, nahiz eta hitz egiteko behar besteko gaitasunik ez izan oraingoz. Eta erabili ere, duela 40-50 urte zirenak baino gehiago dira gaur egun euskara erabiltzen dutenak.

Bistakoa da aurrera egin duela euskarak nabarmen, baina oraindik ere tarte handia dago aurrera egiteko. Euskaraz jarduteko eta euskara ulertzeko gai diren andoaindarrak milaka izanik, guztion esku dago euskara eguneroko bizitzan hizkuntza biziagoa eta erabiliagoa izatea, baita Udalaren esku ere. Inork ez dugu euskara gehiago entzun eta erabiltzearen ardurua hirugarren batzuen esku utzi behar. Ezta Udalak ere. Ezagutzen ez genuen moduan aktibatu zituen iazko gizarte ariketa arrakastatsuek euskal hiztunak, neurri batekoak nahiz bestekoak. Aktibatu zituen, baita ere, herri agintek eta askotariko gizarte-erakundeak, ikuspegi berri batetik. Aldekotasuna, horrela, konpromiso eragingarri eta praktikoa bihurtzeko bidean jarri zen. Udalak obligazioa du herritarrei beraiek aukeratutako hizkuntzan zerbitzua emateko, eta Udalak bere buruari ezarri dion obligazioa da euskara bere lan hizkuntza bezala gero eta gehiago erabiltzea, eta herrian euskararen erabilera sustatzea. Euskara erabiltzearen aldeko ilusioa hauspotu eta berrindartzea da Udalaren konpromisoa 2019ko Euskararen Nazioarteko Egun honetan.

Izan ere, urte hauetan guztietan zehar ikasi dugu, euskara egiazki sendotzeko, behar-beharrezkoak direla ofizialtasuna, euskarazko hezkuntza, helduen euskalduntzea, administrazioan ere euskaraz jardutea, euskarazko hedabideak eta beste hainbat eta hainbat ekintza sustatzaile, eta horiei guztiei bultzada ematen jarraituko du Udalak. Baina urte hauetan guztietan ikasi dugu, beharrezkoak diren gauza horiekin guztiekin batera, euskarak benetan behar duena erabilia izatea dela; ikasi dugu euskarak benetan behar dituenak hiztunak direla; eta ikasi dugu, euskararen alde egin dezakegun gauzarik baliotsuena eta efikazena, horixe dela, erabiltzea, bakoitzak ahal duen mailan han eta hemen, honetaz eta hartaz, aukera duen guztian, euskaraz aritzea. Hori da Udalaren konpromisoa, eta hori da Udalak herritarrei egiten dien gonbidapena.

ANDOAINEN, 2019KO ABENDUAREN 3AN.



ANDOAINGO UDALA

Declaración institucional aprobada por unanimidad por el Ayuntamiento de Andoain en sesión plenaria celebrada el 27 de noviembre de 2019, con motivo del Día Internacional del Euskera.

